

# Fikzio zientifikoa

*Mikel Garmendia*

## **Loroaren teorema**

Denis Guedj

Itzultzailea: Jon Muñoz

Euskal Herriko Unibertsitatea (Zientzia Irakurle Ororentzat bilduma)

2005

Fikzio zientifikoa eta ez zientzia-fikzioa, fikzioa tresna gisa erabilia baita –eleberri bat dugu, beraz– benetako historia, matematikena, kontatzeko. Eleberriaren teknikaz baliatzen da egilea –Jean Gaarder *Sofiaren Mundua* idazteko bezala–, matematikak urruneko edo arrotz egiten zaizkion irakurleari mundu misterioitsu bezain interesgarri horretara hurbiltzen laguntzeko.

Pierre Ruchek (eleberrian  $\pi$   $r$  izango denak), laurogeita hamar urtetik gorako liburudenda-jabea bera, bi gutun jasoko ditu aspaldiko lagun batengandik. Gutunekin batera opari bitxi bat: garai guztietako matematika-liburu onenez osatutako liburutegi bat. Ruche jauna Perrete bikotearekin eta hiru semeekin bizi da: Jonathan eta Lea bikiak eta Max, zeinek loro bat salbatzen baitu bi gaizkileren hatzaparretatik eta etxera eramaten. Intriga batean sartuko dira eta intriga hori matematikaren historiaren bitartez ebatzi beharko dute.

Liburu honen balio literarioa eztabaidagarria da; ez da, bestela esanda, literaturaz edo eleberri on batez gozatu nahi duen irakurlearentzat aproposena. Badu, aldiz, merezimendu argi bat: garai batean (Grezia klasikoan...) elkar osagarri ziren jakintza-arlo guztiak (matematika, literatura, musika...). Errenazimenduan ere ez zegoen gatazkarik jakintza-arloen artean, guztiz kontrakoa baizik. Oso oraintsukoa dugu, beraz, jakintza-arloen arteko bereizkeria edo dibortzioa: letrak alde batetik, zientziak bestetik. Zentzugabekeria galanta, alajaina! Klasikoek berek erakutsi ziguten zein estuki lotuta dauden, esaterako, musika eta matematikak, musika eta literatura... harreman horien guztien arteko lokarria estetika izanik.

Gero eta gehiago dira, zorionez, bereizkeria zentzugabe hori gainditu nahirik, jakintza-alor horietan barnatuz esperimentatzeari ekin dioten idazleak, jakintza-alorren arteko konbinazio interesgarriak eginez literaturari berez duen izaera zabal eta oro hartzailea emanez. Horietakoa dugu Denis Guedj idazle matematikoa edo matematiko idazlea, zeinek matematikaren mundu ezezagun bezain erakargarirako sarbidea ematen digun *Loroaren teorema* eleberriaren bidez.

Euskarazko bertsioak primeran kurrutzen du euskarak berezko dituen egiturak egun gero eta finkatuago dauzkagun molde, joskera eta lexiko modernoarekin egoki uztartuz. Lan bikaina egin du alde horretatik Jon Muñoz-ek Juan Garziaren laguntza beti estimagarriarekin. Espero izatekoa da horrelako lanen bitartez –eta beti ere irakurlearen konplizitatearen eta onespeneren bitartez– euskarazko sintaxia jadanik aski finkatua dugun bezala, lexiko teknikoa ere ("aieru" matematikoak...) gero eta finkatuagoak eta desanbiguatuagoak gelditzen joatea.

Aportazio interesgarria, horrenbestez, gazteentzat –eta ni bezala matematika kontuetan ezjakin samarrak garenontzat– Matematikaren historian barneratze eta historiako matematikari handien bizitza –alde humano eta guzti– ezagutzeko. Eta ez hiztegi entziklopediko edo testu-liburu akademiko hotz baten bitartez, euskara txukunera ekarritako eleberri baten bitartez baizik. Luxu bat.